

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

3.574

2/2005 ZERGA-PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, maiazaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena, Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua aldatzen duena.

Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 2004ko abenduaren 9ko epaiak Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren zenbait manu balio gabetu zituen. Balio gabetze-epai horrek berekin zekarren balio gabetutako manuei beste idazketa bat ematea.

Zerga-araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arau Orokorrak 13. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak foru aldundiari ematen dizkieten eskumenak baliatuz, premiazko arrazoiengatik, ondokoa

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren ondoko manuak aldatzen dira:

Bat. 11. artikulua aldatzen da. Hona hemen hitzez hitz berria:

"11. artikulua.- Balio zuzenketa: amortizazioak.

1. Osagaien funtzionamenduaren, erabilerearen edo zaharkitzearen ondorioz, elementuek galdutako balioaren pareko zenbatekoak kengarriak edo deduzigarriak izango dira. Horiek ibilgetu material nahiz ez-materialen amortizazioan hartuko dira kontuan.

2. Ondorengo bat gertatzen denean, ibilgetu materialak balioa galdu duela esan nahiko du:

a) Arauz onartzen diren koefizienteak edo ratioak eta amortizazio metodoak aplikatzearen ondorio denean.

b) Subjektu pasiboak proposatutako eta zerga administrazioak onartutako plan bati lotzen zaionean.

c) Subjektu pasiboak haren zenbatekoa arrazoitzen duenean.

3. Amortizazioa kalkulatzeko arau bereziak ezarri ahal izango dira legez.

4. Nahierara amortizatu ahal izango dira ondokoak:

a) Ibilgetu material nahiz ez-materialak, baldin eta haien aleko balioa ez bada 601,01 euro baino gehiago.

b) Lan-sozietate anonimoen edo erantzukizun mugatuko lan-sozietateen ibilgetu material nahiz ez-materialak, baldin eta horiek lan-sozietate kalifikazioa lortu zutenetik bost urte igaro baino lehen erositakoak bada eta lan-sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko lan-sozietate horien jardunera atxikita badaude.

c) Meatze-aktiboak, foru arau honen 105. artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) Ikertze- eta garatze-lanei atxikitako ibilgetu material eta ez-materialak, eraikinak izan ezik.

Eraikinak amortizatu ahal izango dira. Amortizatu ere zati berdinetan eta hamar urtean. Amortizatu ahal izango den eraikin zatia ikertze- eta garatze-lanei lotutakoa izango da.

e) Ibilgetu ez-material bezala aktibatutako ikertze- eta garatze-gastuak, nahierara amortizatu ahal diren elementuen amortizazioak izan ezik.

f) Nekazaritzako Ustiategiak Gaurkotzei buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz, lehentasunezko ustiategi elkartuen kalifikazioa duten erakundeen ibilgetu material nahiz ez-

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

3.574

DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 2/2005, del Consejo de Diputados de 24 de mayo, que modifica la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

La Sentencia de 9 de diciembre de 2004 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Supremo ha declarado la nulidad de diversos preceptos de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades. Esta declaración de nulidad hace necesario la aprobación de una nueva redacción de los preceptos directamente afectados por la misma.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 13 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981, y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO:

Artículo Único.

Se modifican los siguientes preceptos de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades:

Uno. Se modifica el artículo 11, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 11.- Correcciones de valor: amortizaciones.

1. Serán deducibles las cantidades que, en concepto de amortización del inmovilizado material o inmaterial, correspondan a la depreciación efectiva que sufran los distintos elementos por funcionamiento, uso, disfrute u obsolescencia.

2. Se considerará que la depreciación del inmovilizado material es efectiva cuando:

a) Sea el resultado de aplicar los coeficientes y métodos de amortización que se aprueben reglamentariamente.

b) Se ajuste a un plan formulado por el sujeto pasivo y aceptado por la Administración tributaria.

c) El sujeto pasivo justifique su importe.

3. Reglamentariamente podrán establecerse reglas especiales de cálculo de la amortización.

4. Podrán amortizarse libremente:

a) Los elementos del inmovilizado material o inmaterial cuyo valor unitario no exceda de 601,01 euros.

b) Los elementos del inmovilizado material e inmaterial de las Sociedades Anónimas Laborales o Sociedades de Responsabilidad Limitada Laboral afectos a la realización de sus actividades, adquiridos durante los cinco primeros años a partir de la fecha de su calificación como Sociedades Laborales.

c) Los activos mineros en los términos establecidos en el artículo 105 de la presente Norma Foral.

d) Los elementos del inmovilizado material e inmaterial, excluidos los edificios, afectos a las actividades de investigación y desarrollo.

Los edificios podrán amortizarse, por partes iguales, durante un período de diez años, en la parte por la que se hallen afectos a las actividades de investigación y desarrollo.

e) Los gastos de investigación y desarrollo activados como inmovilizado inmaterial, excluidas las amortizaciones de los elementos que disfruten de libertad de amortización.

f) Los elementos del inmovilizado material o inmaterial de las entidades que tengan la calificación de explotaciones asociativas prioritarias de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 19/1.995, de 4 de

materialak, baldin eta horiek lehentasunezko ustiategi bihurtu zirenetik bost urte igaro baino lehen erositakoak badira.

g) Enpresaren jardun kutsatzailea zuzendu eta gutxitzeari lotutako aktibo material finko berriak.

h) Lur kutsatuak garbitzeari zuzenean lotutako ibilgetu material eta ez-materialak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ofizialek onartutako proiektuak badira.

Nahierara amortizatzeo aukera izatea, g) eta h) idatz-zatietan adierazitakoak, subjektu pasiboak eskatu beharko du eta Zerga Administrazioak onartu, arlo horretan eskumena duten erakundeen txostena irakurritakoan.

Idatz-zati honetan jasotako nahierara amortizatzeo zenbatekoak zerga-oinarriari gehituko zaizkio, askatasun hori izan zuten elementuen amortizazio, eskualdatze edo dexedemapenetan.

5. Ondasunak erosteko edo berritzeko aukerarekin lagatzen bada, eta bata zein bestea egingo dela zalantzarik ez badago, lagapendunarentzat kengarria izango da amortizazio kuoten pareko zenbatekoa. Amortizazio hori, arestian aipatutako 1. paragrafoaren xedatutakoaren ildotik, aipatutako ondasunei legokieke.

Ez da zalantzan jarriko bata edo bestea egingo dela, baldin eta ekitaldian ordaindu beharreko zenbatekoa ondasuna ekoizteak edo erosteak egiten duen zenbatekoa, lagapenak dirauen bitartean, ondasun horri dagozkion gehienezko amortizazio kuoten batuketari kendu ondoren ematen duen zenbatekoa baino gutxiago bada.

Lagatzen duen erakundeari ordaindu beharrekoaren eta ondasunaren eroste-prezioaren edo ekoizte-kostuaren artean dagoen alde lagapenak dirauen bitarteko zergaldien artean banatu beharreko gastu izango da lagapendunarentzat.

Lagapendunak ondasuna lagatzailearen esku alde aurretik utzi badu, lagapendunak baldintza beretan eta eskualdaketaen aurreko balioarengatik jarraituko du ondasuna amortizatzen.

Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatu behar denean, eragiketak dirauen bitartean, lagatzaileak ondasunaren eroste-prezioa edo ekoizte-kostua amortizatuko du, aukera balioa kendu ondoren.

Paragrafo honetan aipatutako ondasunak nahierara amortizatu ahal izango dira aurreko paragrafoan xedatutako egoeretan.

6. Ondokoetarako egiten diren hornigaien zenbatekoaren bosten bat izango da deduzigarri edo kengarri urtero gehienez:

a) Merkataritzako funtsaren amortizazioa.

b) Marken amortizazioa.

c) Eskualdatze-eskubideen amortizazioa, kontratuak bost urte baino gutxiago dituenetan izan ezik. Bost urte baino gutxiago izanez gero, urteko gehienezko muga iraupenaren arabera kalkulatu da.

d) Iraungitze-data zehatzik ez duten gainerako ibilgetu ez-materialak.

Kenkari edo dedukzio horiek aplikatzeko, ondokoak izango dira ezinbesteko:

a) Aktiboak kostu bidezko erosketaz lortu izana.

b) Eroslea pertsona edo erakunde saltzailearekiko ez dadila egon Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutako egoeraren batean.

Idatz-zati honetan xedatutako betekizuna ez zaio aplikatuko pertsona edo erakunde saltzaileak ordaindutako aktiboen prezioari, baldin eta horiek Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutako egoeraren batean dagoenen bati erosi ez badizkio.

Aurrekoei dagokienez, honako hauek dira Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutako egoerak: urteko kontu finkatuak formulatzeko arauetako I. kapituluko I. atalean araututakoak. Arau horiek abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaren bidez onartu ziren.

julio, de Modernización de las Explotaciones Agrarias, adquiridos durante los cinco primeros años a partir de la fecha de su reconocimiento como explotación prioritaria.

g) Los elementos del activo fijo material nuevo afectos directamente a la reducción y corrección del impacto contaminante de la actividad de la empresa correspondiente.

h) Los elementos del inmovilizado material e inmaterial relacionados directamente con la limpieza de suelos contaminados para aquellos proyectos que hayan sido aprobados por organismos oficiales del País Vasco.

La aplicación de la libertad de amortización a que se refieren las letras g) y h) anteriores deberá ser solicitada por el sujeto pasivo y deberá ser aprobada por la Administración tributaria, previo informe de los órganos competentes por razón de la materia.

Las cantidades aplicadas a la libertad de amortización contenidas en este apartado incrementarán la base imponible con ocasión de la amortización, transmisión o, en su caso, desafectación de los elementos que disfrutaron de la misma.

5. En el caso de cesión de uso de bienes con opción de compra o renovación, cuando por las condiciones económicas de la operación no existan dudas razonables de que se ejercerá una u otra opción, será deducible para la entidad cesionaria un importe equivalente a las cuotas de amortización que, de acuerdo con lo previsto en el apartado 1 anterior, corresponderían a los citados bienes.

Se presumirá que no existen dudas razonables de que se va a ejercer una u otra opción cuando el importe a pagar por su ejercicio sea inferior al importe resultante de minorar el precio de adquisición o coste de producción del bien en la suma de las cuotas de amortización máximas que corresponderían al mismo dentro del tiempo de duración de la cesión.

La diferencia existente entre las cantidades a pagar a la entidad cedente y el precio de adquisición o coste de producción del bien tendrá, para la entidad cesionaria, la consideración de gasto a distribuir entre los períodos impositivos comprendidos dentro del tiempo de duración de la cesión.

Cuando el bien haya sido objeto de previa transmisión por parte del cesionario al cedente, el cesionario continuará la amortización del mismo en idénticas condiciones y sobre el mismo valor anteriores a la transmisión.

Cuando sea de aplicación lo previsto en este apartado, la entidad cedente amortizará el precio de adquisición o coste de producción del bien, deducido el valor de la opción, en el plazo de vigencia de la operación.

Los bienes a que hace referencia este apartado podrán también amortizarse libremente en los supuestos previstos en el apartado anterior.

6. Serán deducibles con el límite anual máximo de la quinta parte de su importe las dotaciones que se realicen para:

a) La amortización del fondo de comercio.

b) La amortización de las marcas.

c) La amortización de los derechos de traspaso, excepto que el contrato tuviese una duración inferior a cinco años, en cuyo caso el límite anual máximo se calculará atendiendo a dicha duración.

d) Los restantes elementos del inmovilizado inmaterial que no tuviesen fecha cierta de extinción.

Para aplicar esta deducción será necesario:

a) Que el activo se haya puesto de manifiesto en virtud de una adquisición a título oneroso.

b) Que la entidad adquirente no se encuentre, respecto de la persona o entidad transmitente, en algunos de los casos previstos en el artículo 42 del Código de Comercio.

El requisito previsto en esta letra no se aplicará respecto del precio de adquisición de los activos satisfecho por la persona o entidad transmitente cuando los hubiere adquirido a personas o entidades que no se encuentren respecto a la misma en alguno de los casos previstos en el artículo 42 del Código de Comercio.

A estos efectos, se entenderá que los casos previstos en el artículo 42 del Código de Comercio son los contemplados en la Sección 1ª del Capítulo I de las normas para la formulación de las cuentas anuales consolidadas aprobadas por Real Decreto 1815/1991, de 20 de diciembre.

Merkataritzako funtsa amortizatzeko, a) eta b) idatz-zatietan xedatutako betekizunak betetzen ez dituzten zuzkidurak kengarriak edo deduzigarriak izango dira, baldin eta merkataritzako funtsaren balio-galtze itzulezin baten ondorio direla onartzen bada.

Aplikazio informatikoak amortizatzeko bi eta bost urte bitarteko epean egiten diren zuzkidurak kengarriak izango dira”.

Bi. 14. artikulua 2. paragrafoaren a) idatz-zatiak ondokoa dio hitzez hitz:

“a) Lurraldeko industriak garatzeko elkarteak”.

Hiru. 15. artikulua 11. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen hitzez hitz berria:

“11. Ibilgetu material eta ez-materialeko ondare ondasunak eskualdatzean lortutako errenta positiboak zerga oinarrian sartze alde-
ra, errenta positibo horien gehenezkoari kendu ahal izango zaio di-
ruaren balio-galeraren zenbatekoa. Galera hori eskualdaketa gertatu
zenetik aurrera lege egin zen azken gaurkotzetik edo erosi zenetik
(gaurkotzearen ondoren erosi bazen) kalkulatu da, kalkulatu ere
ondoko arauen arabera:

a) Ondare ondasun eskualdatuen eroste-prezioak eta ekoizte-
kostuak eta horiei dagozkien amortizazio metatuak dagokion foru
arauak ezarritako koefizienteengatik biderkatuko dira.

b) Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeagatik zehaztutako
zenbatekoan artean dagoen aldea eskualdatutako ondare ondasunaren
balio garbiari kenduko zaio.

c) Eskualdatzen diren ibilgetu materialak ondare ondasun higie-
zinak direnean, eragiketa horren emaitza den zenbatekoa arau onar-
tuko den zorpetze-koefizienteengatik biderkatuko da”.

Lau. 29. artikulua 1. paragrafoaren a) idatz-zatia aldatzen da.
Hona hemen hitzez hitz berria:

“a) Oro har, % 32,5”.

Bost. 37. artikulua aldatzen da. Hona hemen hitzez hitz berria:

“37. artikulua. Aktibo finkoetan (material berriak) egindako in-
bertsioengatik kenkaria.

1. Erakundearen utsiapen ekonomikoa garatzeari lotutako akti-
bo finko materialetan egiten diren inbertsioek inbertsio horien %
10aren kuota likidoa kentzeko eskubidea ematen dute. Ez dira akti-
bo finko material izango lurretan egindako inbertsioak.

Aktibo finko bat ez da berria izango aldez aurretik beste pertso-
na edo erakunderen batek erabili badu. Hau da, aktibo hori ibilgetuari
lotu bazaio edo, nahiz eta abian jarri ez, Kontabilitatearen Plan
Orokorrekin bat etorri, lotu behar izan balitzaio.

2. Aurreko paragrafoan xedatutako kenkaria aplikatu ahal izan-
go zaie finantza alokairu bidez egindako inbertsioei, eraikinei dago-
kienetan izan ezik.

3. Artikulu honen 1. paragrafoan xedatutakoa ondokoei ere apli-
katu ahal izango zaie:

a) Aplikazio informatikoetan egindako inbertsioak.

b) Eskualdatu edo saltzeko asmoz zaharberitutako industria pabi-
lilioiak erostean egindako inbertsioak, zaharberitzeko asmoz in-
dustria pabilioiak erostean egindako inbertsioak edo dagoeneko en-
presaren aktibo diren industria pabilioiak zaharberitzean egindako
inbertsioak.

Aurreko ahapaldian xedatutakoari dagokionez, industria pabi-
lilioi izango dira udalak industria eremu kalifikatutako lurretan eraikitakoak,
pabilioi horretan egiten den lana edo zaharberitze-obra gorabehe-
ra, baldin eta zaharberitze-obra horiek egitura, fatxada edo teilatua
sendotzea badute helburu eta zaharberitze-obra horiek egiten dutena
ez bada eroste-prezioaren % 25 baino gehiago, hori pabilioia berez
zaharberitzeko erosi bada. Eraberritzen den pabilioia enpresaren akti-
bo bada, ordea, zaharberitze-obra horiek egiten dutena ondasunaren
balio garbia baino gutxiago izan beharko du industria pabilioi kalifi-
kazioa izan dezan.

4. Aurreko paragrafoetan aipatutako inbertsioek honako ezaugarri
hauek eduki behar dituzte, eta baldintza hauek bete:

a) Inbertitutako dirua ibilgetuaren barruan kontabilizatzea.

Las dotaciones para la amortización del fondo de comercio que
no cumplan los requisitos previstos en las letras a) y b) anteriores
serán deducibles si se prueba que responden a una depreciación
irreversible del mismo.

Serán deducibles las dotaciones que se realicen linealmente en
un plazo comprendido entre dos y cinco años para la amortización
de las aplicaciones informáticas.”

Dos. La letra a) del apartado 2 del artículo 14 queda redactada
de la siguiente forma:

“a) Las sociedades de desarrollo industrial regional.”

Tres. Se modifica el apartado 11 del artículo 15, que queda re-
dactado en los siguientes términos:

“11. A los efectos de integrar en la base imponible las rentas
positivas obtenidas en la transmisión de elementos patrimoniales
del inmovilizado, material o inmaterial, se deducirá hasta el límite de
dichas rentas positivas el importe de la depreciación monetaria pro-
ducida desde la última actualización legal autorizada respecto al ele-
mento transmitido o desde el día en que se adquirió el mismo, si es
posterior, calculada de acuerdo con las siguientes reglas:

a) Se multiplicará el precio de adquisición o coste de producción
de los elementos patrimoniales transmitidos y las amortizaciones
acumuladas relativas a los mismos por los coeficientes que se esta-
blezcan en la correspondiente Norma Foral.

b) La diferencia entre las cantidades determinadas por la aplicación
de lo establecido en la letra anterior se minorará en el valor neto
contable del elemento patrimonial transmitido.

c) La cantidad resultante de dicha operación se multiplicará,
cuando se trate de la transmisión de elementos patrimoniales del
inmovilizado material que tengan la naturaleza de bienes inmuebles,
por el coeficiente de endeudamiento ajeno que se apruebe regla-
mentariamente.”

Cuatro. Se modifica la letra a) del apartado 1 del artículo 29,
que queda redactada en los siguientes términos:

“a) Con carácter general el 32,5 por 100.”

Cinco. Se modifica el artículo 37, que queda redactado en los si-
guientes términos:

“Artículo 37. Deducción por inversiones en activos fijos materiales
nuevos.

1. Las inversiones que se realicen en activos fijos materiales
nuevos afectos al desarrollo de la explotación económica de la en-
tidad, sin que se consideren como tales los terrenos, darán derecho
a practicar una deducción de la cuota líquida del 10 por 100 del im-
porte de dichas inversiones.

Se entenderá que un activo fijo no es nuevo si previamente ha
sido utilizado por otra persona o entidad, en el sentido de haber si-
do incorporado a su inmovilizado o debiese haberlo sido de confor-
midad con el Plan General de Contabilidad, pese a que no hubiese
entrado en funcionamiento.

2. Serán acogibles a la deducción prevista en el apartado ante-
rior las inversiones realizadas en régimen de arrendamiento finan-
ciero, a excepción de los edificios.

3. Lo dispuesto en el apartado 1 anterior será, asimismo, de
aplicación:

a) A las inversiones realizadas en el ejercicio en aplicaciones in-
formáticas.

b) A las cantidades invertidas en la adquisición de pabellones in-
dustriales rehabilitados para su transmisión, en la adquisición de pa-
bellones industriales para su rehabilitación o en la rehabilitación de
pabellones industriales ya integrados en el activo de la empresa.

A estos efectos, se considerarán pabellones industriales aqué-
llos que se encuentren ubicados en una zona calificada municipalmente
como industrial, independientemente de cual sea la actividad que
se desarrolle en el citado pabellón y obras de rehabilitación, las des-
tinadas a la reconstrucción de los pabellones mediante la consolidación
y el tratamiento de las estructuras, fachadas o cubiertas, y siempre
que el coste global de las operaciones de rehabilitación exceda del
25 por 100 del precio de la adquisición, si se adquieren para rehabi-
litar, o del valor neto por el que estuviera contabilizado el bien si se
rehabilita un pabellón que ya formara parte del activo de la empresa.

4. Las inversiones mencionadas en los apartados anteriores de-
berán reunir las características y cumplir los requisitos siguientes:

a) Que se contabilicen dentro del inmovilizado las cantidades
invertidas.

b) Informatika ekipoa izan ezik, inbertsioen ondorio diren beste aktiboak amortizatzen bost urte izan daitezela gutxienez. Epe hori arauak ezartzen duten bezala kalkulatu da.

c) Inbertsioak, alegia, inbertsio-gaiak, honako egoera hauetakoren batean egotea:

c.1) Zenbait garraio-motaren zerga berezia ordaindu behar ez izatea, bai, zerga horren pean ez daudelako, bai, egonda ere, salbuetsita daudelako.

c.2) Erakundeek turismo ibilgailuak erosteko egindako inbertsioak izatea, baldin eta ibilgailu horiek inori alokatzeko erabiltzen badira. Berdin dio aurreko idatz-zatian aipatutako zerga ordaintzen den edo ez. Alokatzeko duenak, gehienez, hiru hilabete alokatu ahal izango du ibilgailu hori hamabi hilabetean eta ez du erosteko aukerarik izango, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 79. artikulua bosgarren paragrafoan jasotako erantortutako pertsona edo erakundeekin lagatzen ez bazaizkie eta ibilgailu horiek bertan jasotako alokairu jardueretarako baino erabiltzen ez badira.

d) Inbertsioaren aktiboen multzoa 60.101,21 euro baino gehiago izatea ekitaldi bakoitzean, eta honako baldintza hauetakoren bat betetzea:

- Aurretik dauden aktibo material finkoaren eta aktibo ez-materialaren kontabilitateko balioen batuketaren % 10 baino gehiago izatea. Kopuru hori, amortizazioak kenduz, finantza-alkairuen bidezko informatikako programei eta eskuratutako ondasunei dagokie.

- Edo bestela, amortizazioak kendu gabe izatera bereko aktibo finkoaren kontabilitateko balioaren % 15 baino gehiago izatea.

Kontabilitateko balioa zehazteko, inbertsioa egin den ekitaldian aurreko urteko epearen azken egunari dagokion balantzea hartuko da kontuan; ez da konputatuko data horretan abian dagoen inbertsioaren aktibo finkoari dagokiona.

Izaera bereko aktibo finko (hiru digitu izango ditu) izango da Kontabilitateko Plan Orokorren kontu berean sartu edo sartuko dena edo, dagokionean, ofizialki onartutako sektore-planetan jasotzen dena.

e) d) idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, idatz-zati horretan xedatutakoak betetzen dituzten enpresek lehenengo paragrafoan ezartzen den kenkaria aplikatu dezakete, baldin eta inbertsioen aktiboen multzoa 60.101,21 euro baino gutxiago bada. Horretarako, gutxienez, mugagabeko lan-kontratu bat egin beharko dute ekitaldian eta horri eutsi hurrengo bi urteetan. Kontratu horrek plantillaren batez bestekoa handitzea ekarriko du berekin.

5. Artikulu honetan jasotzen diren aktibo material finkoetarako inbertsioak eta foru arau honen gainerakoan jasotzen direnak abian jarritakoan joko dira burututzat.

Hala ere, epe luzerako (hamabi hilabete baino gehiago igaro direnean ondasunak enkargatu zirenetik eskuan izan arte) inbertsioetan subjektu pasiboak erabaki dezake ordainketak egin ahala inbertsioa eginda dagoela. Horiek horrela, inbertsio-ondasunen hornitzaileekin kontratua sinatu zuenean indarrean zegoen kenkariaren erregimena aplikatu ahal izango du.

Aukera hori baliatutakoan, inbertsio guztiari aplikatu beharko zaio irizpide hori.

Aukera hori baliatu nahi duen subjektu pasiboak foru aldundiari emango dio horren berri. Horretarako hilabete izango du kontratua izenpetzen duenetik aurrera. Foru aldundiari egindako jakinarazpenean kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa eta ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia zehaztuko dira. Era berean, jakinarazpenari kontratuaren kopia erantsiko dio.

6. Artikulu honetan jasotako kenkariaren onuradun izateko, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Aktiboak erostean, kenkariaren oinarriaren zati izango da hitzartutako kontraprestazioa. Salbuetsita daude korrituak, zeharkako zergak eta errekaruak, horiek ez baitira konputatuko oinarriari. Hala ere, kontuan har daitezke aktiboak balioesteko. Era berean, ondasunak erosteko jaso diren diru-laguntzen % 67,5 kenduko da oinarri horietatik.

Inbertsioak ondasun higiezin badagozkie, lurzorua balioa kendu egingo da kenkariaren oinarritik.

b) Que los activos en que consistan tales inversiones, a excepción de los equipos informáticos, tengan establecido, al menos, un período mínimo de amortización de cinco años, calculado en los términos que se establezcan reglamentariamente.

c) Que los elementos en que consistan las inversiones se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

c.1) Que no tributen por el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, bien porque no estén sujetos o porque, estándolo, estén exentos.

c.2) Que se trate de inversiones en vehículos automóviles de turismo adquiridos por entidades que, aun tributando por el citado Impuesto se dediquen con habitualidad al arrendamiento, sin posibilidad de opción de compra -"renting"-, de esos vehículos automóviles por tiempo superior a tres meses a una misma persona o entidad, durante un período de doce meses consecutivos, excepto que los mismos sean objeto de cesión a personas o entidades vinculadas en los términos previstos en el apartado Cinco del artículo 79 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, y siempre que esos vehículos automóviles se afecten exclusivamente al desarrollo de las actividades de alquiler referidas.

d) Que el importe del conjunto de activos objeto de la inversión supere en cada ejercicio la cifra de 60.101,21 euros y que cumpla uno de los dos requisitos siguientes:

- superar el 10 por 100 del importe de la suma de los valores contables preexistentes del activo fijo material y del activo inmaterial correspondiente a programas informáticos y a bienes adquiridos en régimen de arrendamiento financiero, deduciendo las amortizaciones, o

- superar el 15 por 100 del importe total del valor contable del activo fijo de la misma naturaleza, sin deducir las amortizaciones.

A los efectos de determinar el valor contable, se atenderá al balance referido al último día del período impositivo inmediato anterior al del ejercicio en que se realice la inversión, sin computar el correspondiente al activo fijo objeto de la inversión que se encuentre en curso a la mencionada fecha.

Se entenderá por activo fijo de la misma naturaleza, el que se incluya o se vaya a incluir en la misma cuenta, de tres dígitos, del Plan General de Contabilidad, o, en su caso, de los planes sectoriales oficialmente aprobados.

e) No obstante lo dispuesto en la letra d) anterior, aquellas empresas que, habiendo cumplido cualquiera de los requisitos previstos en la misma, no superen el importe de 60.101,21 euros en el conjunto de activos objeto de la inversión, podrán aplicar la deducción contemplada en el apartado 1 anterior, siempre que formalicen al menos un contrato laboral indefinido durante el ejercicio que suponga un incremento del promedio de la plantilla y lo mantengan durante los dos años siguientes.

5. Con carácter general las inversiones en elementos de activo fijo material previstas en este artículo, así como las previstas en el resto de esta Norma Foral, se entenderán realizadas en el momento de su puesta en funcionamiento.

No obstante, el sujeto pasivo podrá optar, en proyectos de inversión de larga duración en los que transcurran más de doce meses entre la fecha del encargo de los bienes y la fecha de su puesta a disposición, por entender realizada la inversión a medida que se efectúen los pagos y por la cuantía de éstos, con aplicación del régimen de deducción vigente a la fecha en que se formalizó el contrato con el proveedor de los bienes de inversión.

Una vez ejercitada la opción, el criterio regirá para toda la inversión.

El sujeto pasivo que desee ejercitar dicha opción deberá, en el plazo de un mes contado desde la fecha del contrato, comunicarlo por escrito a la Diputación Foral, señalando el montante de la inversión contratada, el calendario previsto de entrega y pago de los bienes. Asimismo, deberá adjuntarse a la referida comunicación copia del contrato.

6. Para el disfrute de la deducción contemplada en este artículo deberán observarse las siguientes reglas:

1ª. En las adquisiciones de activos, formará parte de la base para la deducción la totalidad de la contraprestación convenida, con exclusión de los intereses, impuestos indirectos y sus recargos, que no se computarán en aquella, con independencia de su consideración a efectos de la valoración de los activos. Asimismo, se deducirá en el 67,5 por 100 del importe de las subvenciones recibidas por la adquisición de los mismos bienes.

En el supuesto de que las inversiones consistan en bienes inmuebles se excluirá de la base de la deducción, en todo caso, el valor del suelo.

Inbertsioak industria pabilioiak eraberritzeko direnean, eraberritze horretarako erabili diren kopuruek zehaztuko dute oinarria, baita pabilioiak eskuratzeko prezioaren kopurua ere. Eraberritzeko erosi badira, ez dira aurreko paragrafoetan jasotako kontzeptuak aintzat hartuko.

2. Kenkariaren oinarria ez da merkatuan egoera normalean eta pertsona independenteen artean adostu daitekeen prezioa baino handiagoa izango.

3. Kenkaria aplikatzea eta inbertsio horiekin lotutako beste ezein zerga-onura bateraezina izango dira, amortizatzeko askatasunari eta amortizazio bizkortuari dagozkienak izan ezik.

4. Inbertsioaren ondorioz lortutako ondasunak hirugarrenei eskualdatzeak, alokatzeak edo lagatzeak (foru arau honen 46. artikuluan 4. paragrafoan aipatutako eperako) bere garaian aplikatutako kenkariengatik ordaindu ez ziren kuotak ordaintzera behartzen du interesduna, baita berandutze-korrituak ordaintzera ere. Kopuru hori dexedematze-urteko ekitaldiaren zerga-aitorpenari gehitu behar zaio.

Dexedematze horren ondorioz inbertsioen kopuruak kenkarietarako eskubiderik ematen ez badu, galdu egingo dira kenkari guztiak, eta lehen aipatutako diru-sarrera egin behar da. Berdin jokatuko da sortu den lanpostuari 4. paragrafoaren e) idatz-zatian adierazitako epean eusten ez bazaio.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez du ondorioz izango, baldin eta hilabeteren barruan ondasunari berriro lehengo xedea ematen bazaio edo ondasun hori antzeko balio eta ezaugarriak dituen beste batez ordezkatzen bada. Jokamolde hori behin baino ez da onartuko”.

Sei. 45. artikuluan 2. paragrafoaren 1. zenbakia indargabetzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Amortizazio koefizienteak.

Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 11. artikuluan 2. paragrafoaren a) idatz-zatiari dagozkion amortizazio koefizienteak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izango dute indarra.

Aipatutako foru arau horren 11. artikuluan 2. paragrafoaren c) idatz-zatiak ezarritakoekin bat etorriz, aurreko paragrafoan adierazitakoa baino lehenago preskribitu ez duten zergaldietarako, Zerga Administrazioak kontsideratuko du subjektu pasiboak galdutako balioaren zenbatekoa justifikatu duela, baldin eta irizpide objektiboak aplikatu baditu.

Bigarrena.- Arauetara igortzea.

Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 11. artikuluan jasotako metodoei eta amortizazio-taulei dagokienez, zerga arauetan jasotako aipamen guztiak, aipatutako manua garatzeko onartzen den araua onartutakoan egintzat joko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Indarrean izatea.

Zerga-premiazko araugintzako dekretu honek Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldiei eragingo die, baita preskribitu ez duten eta, 7893/1999 errekurtsuari erantzunez, Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9an emandako epaiaren eraginpean dauden zergaldiei ere.

Bigarrena.- Arauak emateko eskumena.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio zerga-premiazko araugintzako dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapenak emateko.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz, zerga-premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo erreboka dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko maiatzaren 24a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Quando las inversiones consistan en la rehabilitación de pabellones industriales, la base vendrá determinada por las cantidades destinadas a la rehabilitación de los mismos, así como por el importe del precio de adquisición de éstos, en el caso de adquisición para su rehabilitación, con exclusión de los conceptos señalados en los párrafos anteriores.

2ª. La base de la deducción no podrá resultar superior al precio que hubiera sido acordado en condiciones normales de mercado entre sujetos independientes.

3ª. La aplicación de la deducción será incompatible con cualesquiera otros beneficios tributarios relacionados con las mismas inversiones, excepto en lo que se refiere a la libertad de amortización y a la amortización acelerada.

4ª. La transmisión, arrendamiento o cesión a terceros para su uso de los bienes en los que se materialice la inversión durante el plazo a que se refiere el apartado 4 del artículo 46 de esta Norma Foral, determinará la obligación de ingresar las cuotas no satisfechas en su momento por las deducciones aplicadas y los correspondientes intereses de demora, importe que deberá sumarse a la cuota resultante de la declaración del impuesto correspondiente al ejercicio en que se produzca la desafectación.

Si como consecuencia de la indicada desafectación, se redujese la cuantía de las inversiones a límites inferiores a los establecidos para tener acceso al disfrute de las deducciones se perderán éstas en su integridad, originándose la obligación de ingreso antes señalada. Del mismo modo se procederá cuando no se mantuviera el empleo creado durante el plazo fijado en la letra e) del apartado 4 anterior.

Se exceptúan de lo prevenido en los párrafos anteriores los supuestos en los que, por una sola vez y en el plazo máximo de un mes, se afecte nuevamente el bien o se reponga éste por otro de similar importe y características.”

Seis. Se deroga el número 1º del apartado 2 del artículo 45.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.- Coeficientes de amortización.

Los coeficientes de amortización a que se refiere la letra a) del apartado 2 del artículo 11 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, tendrá efectos para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2005.

Para los períodos impositivos anteriores al señalado en el párrafo anterior, que no hayan prescrito, la Administración tributaria considerará que el sujeto pasivo ha justificado el importe de la depreciación efectiva, en aplicación de lo establecido en la letra c) del apartado 2 del artículo 11 de la citada Norma Foral, si ha aplicado criterios objetivos.

Segunda.- Remisiones normativas.

Todas las referencias contenidas en la normativa tributaria a los métodos y tablas de amortización del artículo 11 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, se entenderán realizadas a la disposición reglamentaria que se apruebe en desarrollo del citado precepto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Entrada en vigor.

El presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos para los períodos impositivos que se inicien a partir del 1 de enero de 2005. Igualmente surtirá efectos respecto de los períodos impositivos anteriores no prescritos que resulten afectados por la Sentencia del Tribunal Supremo de 9 de diciembre de 2004, recaída en el Recurso número 7893/1999.

Segunda.- Habilitación normativa.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de mayo de 2005.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.